

**OINARRI ESPEZIFIKOAK, ZEINEN BIDEZ ARAUTZEN BAITA ARABA
GARAPEN AGENTZIA SA SOZIEATEAREN ZERBITZURA AIARA
INDUSTRIAL LAB-EKO ARDURADUN LANPOSTUA BETETZEKO LANGILE
LAN KONTRATUDUNEN HAUTAKETA**

(deialdiaren kodea: 202301aad)

LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:

Hierarkian Araba Garapen Agentziaren mende egongo da, eta lankidetzaz hitzarmena sinatu duten agentzia eta erakundeekin koordinatuta, honako eginkizun hauek beteko ditu:

- Erakundearen beraren estrategia definitzen laguntzea, haren sorrera eta hedapenetik.
- Inguruko enpresen, profesionalen eta ekintzaileen arteko lankidetzaz ekimenak garatzea eta sustatzea.
- Inguruko enprekin lankidetzaz aritzea lehiakortasuna hobetzeko proiektuak kudeatzeko.
- Ekintzaileei eta berrikuntza irekiko proiektuei laguntzea.
- Proiektuaren kudeaketa operatiboa eta sustapena, eguneroko kudeaketarekin lotutako zeregin exekutiboekin batera.
- Hierarkian gorago daudenek agintzen dizkioten gainerako egiteko guztiak, lanpostuari eta titulazioari lotuta egonez gero.

BIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

Izangaiek posta elektronikoki bidez bidali beharko dituzte oinarri orokorretako 3.1) atalean eskatzen diren agiriak, honako helbide honetara: 202301aad@qualisconsultores.es

Eskaerak aurkezteko epea **2023ko otsailaren 10ean** amaituko da.

HIRUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA PROBEN BALORAZIOA:

1. FASEA: GAITASUN TEKNIKOAREN BETEKIZUNAK, ESPERIENTZIA. (Gehienez 50 puntu)

GAITASUNA	BETEKIZUNA	PUNTUAZIOA	EGIAZTAPENA
Gaitasun teknikoak	Unibertsitate gradua edo lizentzia	Nahitaezko betekizuna	Kasuan kasuko titulu ofiziala aurkeztuta egiaztatzea.
	B gidabaimena	Nahitaezko betekizuna	Kasuan kasuko txartela aurkeztuta egiaztatzea.

<p>Esperientzia</p>	<p>8 urtetik gorako lan esperientzia, hautagaiaren unibertsitate prestakuntzarekin lotuta.</p>	<p>Nahitaezko betekizuna</p>	<p>CV-a aurkeztuta egiaztatzea, eduki profesionalen zinpeko adierazpena eta lan bitzitza eguneratua.</p>
<p>Esperientzia eta/edo baloratzeko moduko ezagutza gehigarriak</p>	<p>Esperientzia lanpostuko lan espezifikoetan.</p> <p>Prestakuntza espezifikoa enpresen kudeaketan; produkzio prozesuak; ekonomia dinamizatzeko ereduak; ekonomia zirkularra; 4.0 industria; ekintzailtza. (Gehienez 10 puntu)</p>	<p>-Sektore publikotik eta/edo pribatutik lehiakortasuna hobetzera bideratutako lankidetzak proiektuetan esperientzia profesionala izatea. (10 puntu).</p> <p>-Industria edo teknologia zentroetako produkzio prozesuei lotutako eginkizun teknikoak dituzten lanpostuak bete izana. (10 puntu).</p> <p>-Berrikuntza, ekintzailtza eta dibertsifikazio proiektuak diseinatu, ebaluatu eta abian jartzearekin lotutako lanpostuetan jardun izana (10 puntu).</p> <p>- Aiaraldeko industria ingurunea ezagutzea. (10 puntu)</p> <p>- 60 ordu edo gehiagoko ikastaroak, 100 ordu arte. (2 puntu)</p> <p>- 100 ordu edo gehiagoko ikastaroak, 600 ordu arte. (3 puntu)</p> <p>- 600 orduko edo gehiagoko ikastaroak. (10 puntu)</p>	<p>Curriculum memoria zehatza, baloratu daitekeen jarduera bakoitzean emandako denbora tarteetara xehakapen zehatzarekin.</p> <p>Kasuan kasuko titulua aurkeztuta egiaztatzea. (Gehienez 10 puntu)</p>

2. FASEA: HIZKUNTZEN BETEKIZUNA. (Gehienez 10 puntu)

Hizkuntzak	Euskara	B2 mailako nahitaezko betekizuna C1/C2 = 5 puntu	Titulua aurkeztuta egiaztatzea.
	Ingelesa	B2 mailako nahitaezko betekizuna C1/C2 = 5 puntu	

3. FASEA: LANPOSTUAREN PROFILARI EGOKITZEKO PROBA

- **Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa** izango da (**GAI – EZ GAI**).
- Probak 1. eta 2. faseetako zenbaketa orokorrean 4 puntuazio onenekin egingo dira, betiere gutxieneko puntuazioa 25 puntukoa bada.
- Izangaiek proba bat edo proba batzuk egin beharko dituzte lanpostuarekiko eta gauzatu beharreko eginkizunekiko egokitasuna baloratzeko xedez.
- QUALISEk txosten zehatza egingo du, 4 puntuazio onenak lortu dituzten izangaiei elkarrizketa egin ostean.
- Gaitzat jotzen diren izangaiek aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko dute erabaki beharreko toki batean, hautaketa prozesu honetarako eratu den hautaketa organoko kideen aurrean.

4. FASEA: ELKARRIZKETA PERTSONALA (Geh. 50 puntu)

- **Nahitaezkoa** da.
- Elkarrizketa pertsonala egingo zaie 3. fasean gaitzat jo diren eta 1. eta 2. faseetako emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten 4 pertsoneri.
- Elkarrizketarako aurreikusitako hitzordua baino astebete lehenago, deitutako hautagaiek azalpen memoria bat bidali beharko diote epaimahaiari, prozesuaren helbide elektronikoko espezifikora. Gehienez ere, 10 orrialdekoa izango da, eta eskualde bateko ekonomia dinamizatzeko balizko proiektu baten aurrean jarduteko proposamena zehatz-mehatz landuko dute.
- Ondoren, elkarrizketaren egunean, hautagai bakoitzak 15 minutuko tarte izango du lehen aipatutako dokumentuari buruzko ondorioak azaltzeko.
- Elkarrizketak oraindik zehazteko dagoen leku batean egingo dituzte hautaketa organoko kideek, eta lanposturako gaitasun orokorrak eta zeharkakoak baloratuko dituzte.
- Elkarrizketa horretan honako gaitasun eta ezagutza hauek baloratuko dira:
 - Harremanetarako eta eragiteko gaitasuna
 - Zerbitzu bokazioa
 - Komunikatzeko gaitasuna (ahozkoa eta idatzizkoa)
 - Proaktibitatea, ekimena eta ekintzailtza
 - Autonomia
 - Dinamizatzeko gaitasuna
 - Ikuspegi teknologikoa

- Berrikuntzarako orientazioa
- Beste hizkuntza batzuk edo I. fasean ebaluatu gabeko ezagutzak
- Fase honetako puntuazioa izango da eskala honen arabera aztertutako gaitasunetako bakoitzean lortutako puntuazioen batura:
 - Gaitasunik ez: 1 puntu
 - Hobetu beharreko alorrak argi eta garbi: 2 puntu
 - Gaitasuna garatzeko fasean: 3 puntu
 - Gaitasun maila aurreratua: 4 puntu
 - Gaitasun maila bikaina: 5 puntu.
- Elkarrizketa pertsonala amaitutakoan, akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, epaimahaikide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.

FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOEN LABURPENA:

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
50	10	EG/G	50	110